



# 7. GAIA: IRUDIAREN KONPOSAKETA

# 7.GAIA

2

I. HERENEN ERREGELA

II. IKUS PISUA

III. HIRUKO-FORMAKO KONPOSAKETA

IV. ATZEALDEA

V. ENKUADREA

VI. BEGIRADA

VII. ZERUERTZA KOKATZEN

VIII. LERRO NAGUSIAK

IX. TENTSIOA

X. ENKUADRE EZA


Konposaketa ikuslearen begirada guri interesatzen zaigun puntura erakartzeko, **interesgunera** erakartzeko elementuak ordenatzeko moduari esaten zaio. konpokateran ikuspuntutik enkuadreakaren parte guztiek ez dute balio berbera. Interes gunea kokatuta dagoen tokiaren arabera lortutako efektua aldatu egingo da. Honi jarraiki aipatzekoa da herenen erregela.

# I. HERENEN ERREGELA

Enkuadrea lerro horizontal eta bertikalen bitartez herenetan banatuta bailego jokatzear datza. Lerro hauek batzen diren elkarguneak “**indarguneak**” edo “**interesguneak**” mugatuko dituzte. Elementu garrantzitsuenak gune hauetan kokatuz, ondo egituratutako irudi bat lortuko dugu.

Oinarrian, erregela hau pantaila lerro horizontal eta bertikalez osatutako sareta baten bitartez hiru parte berdinetan banatuta dagoela irudikatzean datza. Beraz, pantailan bederatzi laukizuzen berdinean osatuko dira. Lerro horizontal eta bertikalen elkarguneak **lau gune** eragingo ditu, eta horiek izango dira **irudiaren interesguneak**.

- Oharra: benetako herenen erregelan laukizuzenak ez dira berdin-berdinak, hala ere hurbil dagoenez, goiko planteamneduak prozesua errazten du.



- Gune horietan kokatu beharko da azpimarratu nahi izango dugun subjektu edo objektua. Gune horiek ikuslea irudiaren beste guneak arakatzera gonbidatzen dutenez, subjektu/objektu nagusia kokatzeko leku aproposa da.
- Hala ere ezin da arau itxi moduan kontsideratu.

- Irudi guztiek ez dute zertan herenen erregela jrraitu, beti ere transmitu nahi denaren araberrako izango da. Hainbat kasutan erdi erdia irtenbiderik egokiene izan daiteke.

## II. IKUS PISUA

Orokorrean konposaketak orekatuta egon behar dute. Oreka ez da berdintasunean edo simetrian oinarrituko. Irudiaren oreka honako hauek emango diote irudiari:

- Tamaina
- kolorea
- Posizioa
- Tonua
- Forma
- Textura



## **TAMAINA ETA KOLOREA**

- Tamaina handiagoari, ikus pisu handiagoa dagokio.
- Kolore beroek hotzek baino pisu handiagoa dute.

## POSIZIOA

- Zenbat eta sakontasun gehiago edo urrunago pisu handiagoa. Hurbileko objektu baten tamainak konpentsatzen du.

## **KOKAPENA**

- Goiak beheak baino gehiago pisatuko du.
- Eskuinak ezkerrak baino gehiago

## TONUA

- Atzealde ilunetan tonu argiek gehiago pisatzen dute atzealde argietan tonu ilunek baino.
- Zuriak beltzak baino gehiago pisatzen du.
- Atzealde berdinarekin kontraste gehien izango duen tonuak pisatuko du gehiago.

## FORMA ETA TEXTURA

- Forma erregularrak irregularrak baino gehiago pisatzen du. Forma trinko batek sakabanatu batek baino gehiago pisatzen du.
- Azalera zimurtsua duen objektu batek, azalarena landuena duen batek baino gehiago pisatuko du.

# III. HIRUKO- FORMAKO KONPOSAKETA

- Telebista asko erabiltzen da eta pinturatik jasotakoa da. Beraren erabilerarekin, konposaketa egonkor eta orekatua lortuko da.
- Aktore baten lehen plano batek hiruki-forma iradokituko du. Sorbalda oinarria izanik, burua bere gainean modu egonkorrean pausatuko da.

## IV. ATZEALDEA

Atzealdea grabatzen ari garenarekiko egokitu beharko dugu. Zenbaitetan ezingo dugu egin eta beste zenbaitetan, berriz, irudia jasotzen ari garen ikuspuntua aldatuta nahikoa izango zaigu.

## Adi...

- Grabatzen ari garen elementuarekin kontrastatzen ez duten atzealdeekin.
- Itsutzen duten argi iturriekin edo subjektuarekin gehiegi kontrastatzen dutenekin. Horren adibide kamerara begira dagoen foku bat edota barnealdeko grabazio bat kamera aurre-aurrean dagoen lehio bat...
- Gehiegizko xehetasunak dituen atzealde batekin. Atzealdeak xehetasun asko balitu elementu nagusiarenganako arretan eragingo luke.


Honelakoak ekidin ezinak balira enfoke ingurua murriztuz atzealdea desenfokatuta erakustea litzateke irtenbide bat, modu honetan garrantzia gutxituz.



# V. ENKUADREA

Errealitatea bere horretan erakutsiko duen planorik ez da esistitzen. Kamerak eurrekoari mugak jartzearen ekintza horrekin, **aukeraketa** eta ondorioz **manipulazio** prozesu bat abiatzen du. Kamerak oinarria errealitatean izanda ere, enkuadratzerakoan eta espazioa antolatzerakoan manipulatu ari da. Ikusleei erakutsiko dieguna guk geuk aukeratutakoa, guk geuk aukeratutako moduan erakutsiko diegu. **Aukeraketa** honetan oinarritzen da kameraren jarduna: enkuadrea, konposaketa, interesgunea...

Enkuadrea aprobetxatu beharra dago. **"airea"** edo subjektu/objektu nagusia inguratzen duen espazioa, **irudiaren parte garrantzitsu bat da eta zaindu beharra dago.**



esquema gráfico ley de la  
mirada

Figura bat **mugitzen** ari denean, ez da komeni enkuadreakaren erdian kokatzea eta airea **mugimenduaren zentzu berean** kokatzea izaten da, printzipioz, komenigarriena.

# VI. BEGIRADA

Lehen planoak deigarriagoak izango dira begiek herenekin bat egiten badute. Adibideetarako hiru irudi hauetan begiek goiko herenarekin bat egiten dute. Begiak bertikalki zentratu izan balira, aire gehiegi legoke goialdetik irudia desorekatuz, batez ere bigarren eta hirugarren irudietan.

## VII. ZERUERTZA KOKATZEN

Zerua eta lurraren artean simetria lortu nahiko bagenu, zeruertza erdian koka genezake. Horrela ez bada, horizontea heren bertikalekin koinzidi araziko dugu.. Kurrari garrantzi gehiago eman nahi izango bagenio, goiko herenarekin, eta garrantzitsuena zerua balitz, beheko herenarekin.

# VIII. LERRO NAGUSIAK

- Lerroak irudi batzuei sakontasuna emateko aprobexatu ditzakegu. Lerroak espaloietan, kableetan, trenbideetan, menietan, eraikinetan...bilatu daitezke.
- Lerroak erabiltze arkoan lerro desberdinak nahastu ez daitezen kontu izan beharko dugu soiltasuna bilatuz. Nahasmena egotekotan, bilatutako efektua behar du izan, adierazgarri izan behar du.

# IX. TENTSIOA

- TENTSIOA dagoela esaten dugu interesguneak aurretik aipatutako lau puntuetatik eta erdigunetik kanpo daudenean.
- Zerbait bere osotasunean ez erakusteak tentsioa zorrarazten du, burmuinak antzerako figurak memorian bilatuz bere egitura berkonposatzeko joera dauka.
- **Gauzak erakusteko aukera ohituta gauden moduetatik aldentzen den heinean, ezegonkortasuna, ziurgabetasuna eta tentsioa sortuko da.**

## X. ENKUADRE EZA

■ Hasiera batean, enkuadre ezak, irudia berrenkuadratzeko saiakera eragiten du ikuslearengan, ohiko ikuskerara eramateko saiakera egingo du. Bere desioen ezintasunaz ohartu eta onartzen duenean, proposamen berritzaileak eskaini ahal dion gozamen estetikoari bidea zabalduko dio.



Ralph Gibson s/t. 1975



- Enkuadre ezak egilearen borondatean nabarmentzeaz gain, enkuadrearen ertzak izugarri azpimarratuko ditu izan ditzaketen balio adierazgarri eta estetikoak nabarmenduz. .
- Subjektu edo objektu baten mozketak bortitzak enkuadrearen mugetatik aurrerako espazioaren jarraikortasuna iradokituko du.

Tentsioa sortzen dugu ere ondoko kasuetan:

- Begiradaren araua apurtzen dugunean.
- Herenen araua apurtzen dugunean ere, tentsioa sortuko dugu.
- Tentsioa sorraraziko dugu baita, hartzearen angulazioa, hartze horretarako “naturala” kontsideratzen den horretatik aldentzen den neurrian.
- Irudi batean zenbat eta elementu gehiago erakutsi, orduan eta zailagoa egingo zaio burmuinari